

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

5182

EBAZPENA, 2018ko irailaren 28koa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez aldatzen eta berrikusten baita Papel Aralar SA sozietateari emandako ingurumen-baimen integratua, papera fabrikatzeko jarduerarako, Amezketako udal-mugarlean (Gipuzkoa).

Ingurumeneko sailburuordearen 2008ko apirilaren 25eko Ebazpenaren bidez eman zitzaion Papel Aralar SAri ingurumen-baimen integratua, papera fabrikatzeko jarduerarako, Amezketako udal-mugarlean (Gipuzkoa).

2008ko azaroaren 12an, ingurumen-organoak agindua eman zuen Papel Aralar SAk 2008ko apirilaren 25eko Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua ebazteko. Agindu horretan, partez onesten da gora jotzeko errekurtsua, eta ebazpen horren bigarren ataleko B.1.2.3, B.1.2.4 eta C.2 azpiatalak aldatzen dira.

Ingurumeneko sailburuordearen 2010eko martxoaren 9ko Ebazpenaren bidez aldatu egin zen Papel Aralar SAri eman zitzaion ingurumen-baimen integratua, Amezketako udal-mugarlean (Gipuzkoa) papera fabrikatzeko jarduerarako.

Papel Aralar SAk 2010eko irailaren 9ko Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua ebazten duen agindua eman zuen ingurumen-organoak, 2010eko martxoaren 9an. Agindu horretan, partez onartzen da gora jotzeko errekurtsua, eta ebazpen horren bigarren ataleko B.1.2.3 eta B.1.2.4 azpiatalak aldatzen dira.

Ingurumeneko sailburuordearen 2014ko maiatzaren 8ko Ebazpenaren bidez aldatu eta eragin-ekor egin zen Papel Aralar SAri eman zitzaion ingurumen-baimen integratua, papera fabrikatzeko jarduerarako, Amezketako udal-mugarlean (Gipuzkoa).

2014ko irailaren 30ean, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Europako Batzordearen 2014ko irailaren 26ko Betearazpen Erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira orea, papera eta kartoia ekoizteko teknologia erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Isurketa Industrialei buruzko 2010/75/EB Zuzentarauaren araber (2014/687/EB Erabakia).

2016ko abenduaren 31n, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Aipatutako testu bateginaren 26. artikulua zehazten ditu baimena berrikusteko baldintzak; horrela, instalazio baten jardura nagusiari dagozkion teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak argitaratu eta lau urteko epean, organo eskudunak bermatuko du berrikusi direla eta, hala behar bada, egokitu direla instalazioa baimentzeko baldintza guztiak, eta instalazio horrek betetzen dituela TEO aplikagarrien erreferentzia-dokumentuei buruzko ondorioak.

2017ko azaroaren 29an, baimena berrikusi ahal izateko, ondorioetan deskribatutako teknika erabilgarri onenekin instalazioak izandako funtzionamenduaren konparatiboa bidaltzeko eskatu zion ingurumen-organoak Papel Aralar Sari, baita isuriei buruzko dokumentazioa ere.

2017ko abenduaren 12an, ingurumen-baimen integratua berrikusteko eskatu zitzaion dokumentazioa aurkeztu zuen Papel Aralar SAk.

Aurkeztutako dokumentazioa nahikoa zela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordearen 2017ko abenduaren 19ko Ebazpenaren bidez erabaki zen jendaurrean jartzea Papel Aralar SAren ingurumen-baimen integratuaren berrikusketa, 30 egun balioduneko epean, egoki iriztitako alegazioak aurkezteko. Eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2017ko abenduaren 28an.

Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, 2017ko abenduaren 19an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak txostena eskatu zien Amezketako Udalari, URari eta Osasun Sailari.

2018ko urtarrilaren 8an eta 2018ko maiatzaren 15ean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta URak txostena bidali zuten, hurrenez hurren, eta espedientean jaso da txosten horien emaitza.

Ingurumeneko sailburuordearen 2018ko otsailaren 23ko Ebazpenaren bidez aldatu zen Papel Aralar SA sozietateari emandako ingurumen-baimen integratua, papera fabrikatzeko jarduerarako, Amezketako udal-mugartean (Gipuzkoa).

2018ko irailaren 14an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, Papel Aralar SAren esku utzi zen espedientea.

Ingurumen-baimen integratuaren berrikusketari dagokion jendaurreko informazioaren izapidea amaituta, ez da alegaziorik aurkeztu.

Ingurumen-organo honek du ebazpen hau emateko eskumena, xedapen hauetan xedatutakoaren arabera: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babestekoa, eta 77/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Honako xedapen hauek ikusi dira: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoa; 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Industriako Isurpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 77/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta oro har aplikatzekoak diren gainerako arauak.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Berrikustea Papel Aralar SAri emandako ingurumen-baimen integratua, eta oreka, papera eta kartoia ekoizteko teknologia erabilgarri onenen gaineko ondorioen dokumentuari egoitzea baimenaren baldintzak.

Bigarrena.– Aldatzea Papel Aralar SAri Amezketako udal-mugartean papera fabrikatzeko jarduerarako emandako ingurumen-baimen integratua, zeina 2008ko apirilaren 25eko Ebazpenaren bidez eman baitzen. Ondorioz, 2008ko apirilaren 25eko Ebazpen horren lehenengo eta bigarren apartatuak aldatzen dira, eta honela idatziak gelditzen:

«Lehenengoa.– Ingurumen-baimen integratua ematea Papel Aralar SAri (helbide soziala: San Bartolome 40, Amezketako udal-mugartea, Gipuzkoa; IFK: A-20613253), paketatzeko paper malgua eta kolore anitzeko papera fabrikatzeko (iztukadurarekin edo gabe), Amezketako udal-mugartean, ebazpen honen bigarren apartatuan xedatutako baldintzetan. Kategoria honetan sartuta dago jarduera: abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsadura-

ren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 1. eranskineko 6.1.b) kategoria, Parera eta kartoia fabrikatzeko industria-instalazioak, egunean 20 tona baino gehiago ekoizteko ahalmena dutena.»

Amezketako udal-mugartean kokatuta dago Papel Aralar SA, eta udal-mugartearen izen bereko ibaiak banatzen dituen bi lursail okupatzen ditu.

Hainbat etapatan banatzen da instalazioetan burutzen den ekoizpen-prozesua. Prozesuaren lehen etapan, orea prestatzen da. Horretarako hainbat urrats ematen dira:

- Orea desegin eta diluzitzea pulperretan.
- Birrinketa bidez fintzea, zuntzen neurria eta lodiera txikitzen da horrela.
- Zentrifugazio eta filtrazio bidez araztea, ezpurutasunak bereizten dira hor.

Gero, paper-makinetan sartzen da orea. Hiru makina daude, eta horietako bik (1. eta 3. makinak, zehazki) paper iztukatua fabrika dezakete, iztukadura-saltsarekin inpregnatuz hala eskatzen duen paperaren aldea. Paper-makinetan ura kentzen da, berotzeko eta prentsatzeko barne-prozesuen bitartez, harik eta % 95-eko materia idorrera heldu arte.

Zabalera finkoa eta luzera aldakorreko biribilki moduan sortzen da papera makinetan, eta horien amaieran dauden bobinatze makinetara bideratzen. Horietan, bezeroak eskatutako zabalera eta luzeraren arabera mozten eta bobinatzen da papera. Prozesu hori amaituta, hiru makinentzat berdina den paketatze-prozesura bideratzen dira biribilkiak. Plastikoarekin paketatzen dira, biribilkia arrabol-sistema batean bira araziz.

Urtean 110.000 t ekoizteko ahalmena du, gutxi gorabehera.

Energia elektrikoa, gas naturala, gasolioa eta petrolio-gas likidotuak dira ekoizte-prozesurako erabilitako energia-baliabideak. Gas naturala erabiltzen da kogenerazio-instalazioan elektrizitatea sortzeko, lurruna sortzeko nahiz I. eta III. makinaren infragorri bidezko lehorketan, IV. makinaren erregailuetan eta instalazio guztiko olio termikoko galdaretan, eta gasolioa eta PGL, aldiz, orga jasotzaileetan. 380.000 MWh gas natural eta 50.000 kg PGL kontsumitzen da urtean.

Instalazioetan behar den energia elektrikoa horretarako diren kogenerazio-instalazioetan sortzen da. Kogenerazio-instalazioak 12,5 MW-ko potentziako galdara bat eta 1,4 MW-ko potentziako bapote-turbina bat ditu. Turbinatik ateratzen diren keak galdara batera bideratzen dira, zeinak bi presio-mailatan sor baitezake lurruna: 20,2 t/h lurrun 40 bar-ean eta 2,5 t/h lurrun 7 bar-ean. 2 MW potentziako errekuntza-ostea dakar berarekin galdarak. Instalazioa gas-konpresore batek eta erregulazio- eta kontrol-tresnek osatzen dute.

Fabrikari behar den ura udal-saretik nahiz Amezketa ibaitik hartzen da. Udalerriko saretik hartzen den ura langileen kontsumorako eta higiene-zerbitzuetarako erabiltzen da; Amezketa ibaiko urak, berriz, ekoizpen-prozesura bideratzen dira. 2017an, 1.457.238 m³ ur bildu zen –ez kontsumitu–, orotara.

Halaber, enpresan sortutako efluentek bitan banatzen dira: industria-urak eta erabilera sanitarioko urak. Industria-urak tratatzeko instalazioan tratatzen dira industria-urak, eta erabilera sanitarioko urak, aldiz, iragazki biologikoko bi hodi septikotan. Urak tratatu ondoren, bi fluxuak Amezketa ibaira isurtzen dira isuri-puntu independenteetatik.

Atmosferara egindako isurketak kogenerazio-prozesuko galdaretatik, olio termikoko galdaretatik eta paper-makinetako infragorri bidezko lehorgailuetatik eta IV. makinaren kanpaiaren erregailuetatik egiten dira.

Bestalde, hauek dira instalazioan sortutako hondakin arriskutsu nagusienak: olio erabilia, disolbatzaileak, kutsatutako ontziak, fluoreszenteak eta zapiak eta xurgatzaileak.

Europako Batzordearen 2014ko irailaren 26ko Betearazpen Erabakian, oreka, papera eta kartoia ekoizteko teknologia erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dira; bada, erabaki horretan jasotzen diren teknika erabilgarri onenen artean, uraren kontsumoa gutxitzera bideratuak azpimarra daitezke: ur zurien zirkuituen bereizketa eta ur horiek birziklatzea; ur zurien andel-sistemak; ur klarifikatuak eta hauste-oreka; hozte-urak orekatu, bildu eta berriz erabiltzea, eta ur-zirkuituak ixtearen ondoriozko eragozpenen kontrola. Gainera, hondakin-uren isuriak eragindako inpaktua minimizatzen, homogeneizazio-tanga bat, tratamendu fisiko-kimiko baten osteko 900 m³-ko tratamendu biologiko bat, eta industria-urentzako tratamendu fisiko-kimiko bat ditu Papel Aralar SAK, baita erabilera sanitarioko urentzako iragazki biologikoko bi hodi ere. Airera egindako isurketak minimizatzen bideratutako teknika erabilgarri onenei dagokienez, azpimarratu behar dira energetikoki eraginkorrak diren teknologiak erabiltzea, galdara laguntzaileen errekuntza-baldintzak kontrolatzea eta NO_x gasen isurketak gutxitzeko erregailu bereziak instalatzea bezalako lehen mailako neurriak.

Halaber, Europako Batzordearen 2014ko irailaren 26ko Betearazpen Erabakia betetzeko beharrezkoak diren bitarteko tekniko eta antolaketakoak daude. Erabaki horren bidez, oreka, papera eta kartoia ekoizteko teknologia erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dira, eta ondorio horietatik honako hauek aplikatu behar dira: TEO1, TEO2, TEO5, TEO6, TEO7, TEO8, TEO9, TEO10, TEO12, TEO14, TEO17, TEO47, TEO48, TEO49, TEO50, TEO52, TEO53.

«Bigarrena.– Honako baldintza eta eskakizun hauek ezartzea, Papel Aralar SAK, Amezketako udal-mugartean sustatzen duen papera fabrikatzeko jarduera ustiatzeko:

A) Papel Aralar SAK Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dio Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunaren gaineko datuen aldaketa oro.

B) Sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu duen dokumentazioan aurreikusi bezala burutuko dira neurri babesle eta zuzentzaileak, indarrean dagoen araudiaren arabera eta atal hauetan xedatutakoari jarraituz:

Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak:

Papel Aralar SAKen instalazioaren ustiapenean bete beharreko baldintzak dira atmosferarako isuriek ez gaintzea ebatzen honetan ezarritako balioak, eta Ingurumen Sailburuordetzak jarraitu bide teknikoetan ezarritako eskakizun teknikoak betetzea.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta bide egokienetatik kanporatuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isurketa ez-zarratuak biltzea teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurri egokiak hartuko dira ustekabeko isurketarik ez egiteko, eta haien efluentek giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezzen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, modu eraginkorrean aurre egiteko efluen-

2018ko urriaren 23a, asteartea

teen temperatura- eta konposizio-aldaketei. Era berean, instalazio horiek martxan ez dauden edo erabilgarri ez dauden aldien iraupena ahalik eta gehien murriztuko da.

Instalazioaren titularrek bete beharko dituzte Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzeko abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotzen diren betebeharrak.

Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte honako elementu hauek: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Organo horrek foku berri bat baimendu ondoren, abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolako erakunde batek egindako hasierako Administrazio Lankidetzaren Era-kunde (ALE) txosten bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahal izango zaio Ingurumen Sailburuordetzari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

B.1.2.- Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzeko eta bera ezartzeko oinarrizko xedapenak finkatzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren katalogoan bildutako 03 jarduerari (errekuntzarekin egiten diren prozesu industrialak) lotutako foku konfinatu hauek dituzten papera fabrikatzeko Papera Aralar SAreko instalazioak:

Fokua	Kodea	Izena	Garaiera (m)	Barruko diametroa (m)	Talde-katalogazioa	Funtzionamendu-araubidea
2	20-25583-02	Umisa galdara	15	0,59	03010302 B	Sistematikoa
4	20-25583-04	Paper-makinaren olio-galdara termikoa I	5	0,138	03010303 C	Sistematikoa
5	20-25583-05	Paper-makinaren olio-galdara termikoa III	5	0,21	03010303 C	Sistematikoa
6	20-25583-06	Paper-makinaren infragorriak I (I)	2,5	0,70 x 0,70	03032100 C	Sistematikoa
7	20-25583-07	Paper-makinaren infragorriak I (II)	2,5	0,45 x 0,70	03032100 C	Sistematikoa
8	20-25583-08	Paper-makinaren infragorriak I (III)	2,5	0,70 x 0,70	03032100 C	Sistematikoa
10	20-25583-10	Paper-makinaren infragorriak III (II)	6	0,50 x 0,60	03032100 C	Sistematikoa
11	20-25583-11	Paper-makinaren infragorriak III (III)	4,6	0,22 x 0,45	03032100 C	Sistematikoa
12	20-25583-12	Paper-makinaren erauzketa-suburua I	10,30	Sekzioa: 0,7 x 0,6 m ²	-	Sistematikoa
13	20-25583-13	Paper-makinaren erauzketa-suburua II	10,10	Sekzioa: 0,7 x 0,6 m ²	-	Sistematikoa
14	20-25583-14	Paper-makinaren erauzketa-suburua III	14,20	1,5	-	Sistematikoa
15	20-25583-15	Aitesa galdara	20	2	03010301 B	Sistematikoa
16	20-25583-16	IV. makinaren galdara	5	1	03010302 B	Sistematikoa

FE15 «Aitesa galdara» isurtze-fokuak by-pass sistema bat du segurtasun-elementu gisa. By-pass hori batez beste urtean hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzera pasatuko balitz, ordubete baino gehiagoko iraupen indibiduala izanik, edo, maiztasuna edozein dela ere, isurtzeen iraupen orokorra instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, isurtze-foku gisa araupetu beharko da.

Foku ez-sistematiko horietariko bat urtean batez beste hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzera pasako balitz eta aldi bakoitzak ordubete baino gehiago iraungo balu, edo, maiztasuna edozein dela ere, igorpenen iraupena orokorrean hartuta instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bost baino handiagoa bada, igorpen-foku sistematiko gisa araupetu beharko da.

Urte jakin batean foku sistematiko batek foku ez-sistematiko batek bezala funtzionatzen badu, ez da foku horren gaineko kontrolik egin beharko urte horretan. Ondoko urtean egin beharko da, baldin eta kontrola salbuesteko baldintzek ez badute bere horretan jarraitzen. Ingurumena zaintzeko dagokion programan justifikatu beharko da inguruabar hori.

B.1.3.– Isurketaren muga-balioak.

Atmosferarako isurketek muga-balio hauek ez gairatzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Fokuak	Substantziak	Isurketen muga-balioak	O ₂ portzentajea
2, 4, 5, 6, 7, 8,10, 11, 15	Nitrogeno oxidoak (NO _x)	615 mg/Nm ³	
	Karbono monoxidoa (CO)	625 mg/Nm ³	
16	Nitrogeno oxidoak (NO _x)	200 mg/Nm ³	3
	Karbono monoxidoa (CO)	100 mg/Nm ³	3

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Isurketa-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoa hartuko da aintzat. Ikusten bada isurtzeko muga-balioren bat ez dela betetzen, behar diren neurri zuzentzaileak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta, berehala, ez-beteztearen, neurri zuzentzaileen eta haien epeen berri eman beharko zaio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari.

B.1.4.– Gasak bildu eta kanporatzeko sistemak.

Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzeko abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte instalazioaren titularrek.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo bigarren apartatuko C.1.1.2 azpiapartatuan ezarritako gorenko kotatik behera. Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte honako elementu hauek: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Organo honek foku berri bat baimendu ondoren, abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolako erakunde batek egindako hasierako neurketa-kontrol bat igorri

beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahal izango zaio Ingurumen Sailburuordetza, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

B.2.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

B.2.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

Isuria sortzen duen jarduera-mota nagusia: Papera fabrikatzea.

Jarduera-taldea: Paper-orearen eta papergintzaren industria.

Mota-taldea-EJSN: 2-14-1712.

Isuria	Hondakin-ur mota	Isuriaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Orea	Isuri-puntuaren UTM koordinatuak (ETRS 89)
NO2000258 Prozesua-Papergintza-Amezketak	Industrialak	Ekoizpen-prozesua	Amezketak	Oria	Amabirjina ibaia I-ES021MAR002581	X=574.370 Y= 4.766.385
NO2000259 Komunak-Papergintza-Amezketak	Hirikoa	Erabilera higienikoa	Amezketak	Oria	Amabirjina ibaia II-ES021MAR002581	X=574.353 Y= 4.766.596

B.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

– 1. isuria: NO2000258 Prozesua-Papergintza-Amezketak

Orduko puntako emaria:	0,18 m ³ orduko (75 l/s)
Eguneko gehieneko bolumena:	3.888 m ³ eguneko
Urteko gehieneko bolumena	1.360.800 m ³ urteko

– 2. isuria: NO2000259 Komunak-Papergintza-Amezketak

Eguneko bolumena	3,6 m ³
Urteko gehieneko bolumena	1.327 m ³

Etenik gabeko ekoizpen-jarduera denez, emaria erregulatzeko sistemak erabili behar ditu titularrak, eguneko batez besteko bolumenaren egonkortasuna ahalbidetzen dutenak.

B.2.3.– Isurketen muga-balioak.

Ondorengo zerrenda honetan ageri dira isurien kutsadura-parametroen ezaugarri nagusiak, bakoitzarentzat ezarritako muga-balioekin:

– 1. isuria: NO2000258 Prozesua-Papergintza-Amezketak.

2018ko urriaren 23a, asteartea

Isurketen muga-balioak	
Parametroak	Gehieneko kontzentrazio puntuala
pH-a	5,5-9,5
Aluminioa (Al)	1 mg/l
AOX	0,5 mg/l

Parametroa	Urteko batez besteko kontzentrazioa mg/l (**)	Hileko gehieneko batez besteko kontzentrazioa mg/l (**)	Eguneko batez besteko kontzentrazioa mg/l (**)	Gehieneko kontzentrazio puntuala mg/l (*)
OEK	80	115	160	180
OEB ₅	10	15	20	25
Solido esekiak	25	30	35	40
(*) Lagin puntual bati dagokiona				
(**) 24 orduko laginekin osatuari dagokiona				

Temperatura: ibilguan 1,5 °C baino gutxiago areagotzea.

OEK balioak berrikusi ahal izango dira, baldin eta gutxitu badaitezke teknologia-aurrerapen aplikagarriari esker edo ekoizpen-prozesuan gehigarri biodegradableagoak edo OEK karga gutxiago eragiten dutenak izateari esker.

Gainera, Europako Batzordearen 2014ko irailaren 26ko Betearazpen Erabakia betez, zeinaren bidez ezartzen baitira oreka, papera eta kartoia ekoizteko teknologia erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, urteko batezbesteko hauek bete beharko ditu:

20 m³/t baino gutxiagokoa izango da hondakin-uraren emaria, urteko batezbesteko gisa adierazia, eta parametro hauekin beteko da:

Parametroa	Urteko batezbestekoa kg/t (*)
OEK	< 1,5
Solido esekiak	< 0,35
Nitrogenoa, guztira	< 0,15
Fosforoa, guztira	< 0,012
Konposatu organiko halogenatuak (AOX)	< 0,05

(*) Urtebetez erdietsitako eguneko batez besteko guztien batezbestekoa izango da urteko batezbestekoa, eguneko ekoizpenaren arabera haztatuak, eta sortutako ekoizpen-masen unitateko isuritako substantzien masa gisa adierazia.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurketen muga-balioak lortzeko.

Ez da baimentzen 817/2015 Errege Dekretuaren IV. eta V. eranskinetan barne hartutako inongo substantzia arriskutsurik isurtzerik kuantifikazio analitikoaren mugarena baino kontzentrazio handigoan, zeina parametro bakoitzerako ezarritako IKA baino % 30 baino gutxiagokoa izan behar baita.

Isuriek hondakin-ur mota bakoitzak berezkoak dituen kutsadura-parametroak izan ahal izango dituzte kontzentrazio batzuetan zeinak ez baitira ingurune hartzailearen ingurumen-kalitateko arauak ez betetzeko arrazoi izango, arau horiek parametro guztietarako bete beharko dira eta. Bestela, titularra behartuta egongo da arazketa-instalazioak osatzera, isuria izan ez dadin arau horiek ez betetzearen kausa.

– 2. isuria: NO2000259 Komunak-Papergintza-Amezketaketa.

Parametroak	Isurketaren muga-balioak
Olioak eta koipeak	20 mg/l baino gutxiago
Oxigeno Eskatera Biokimikoa 5 egun (OEB ₅)	25 mgO ₂ /l baino gutxiago
Oxigeno Eskatera Kimikoa (OEK)	125 mgO ₂ /l baino gutxiago
Solido esekiak	35 mg/l baino gutxiago
pH-a	6,0 eta 9,5 bitartean

B.2.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Enpresa eskatzaileak aurkeztutako agirietan araberakoak izango dira industria-instalazio guztietarako arazteko instalazioak edo hondakin-uren neurri zuzentzaileak, eta elementu eta prozesu hauek izango dituzte funtsean:

NO2000258 Prozesua-Papergintza-Amezketaketa:

Ezarritako neurriak.

Barne-neurriak, emariak eta isuritako kargak minimizatzeko ekoizpen-prozesuan:

– Erabilitako ura berreskuratzea bere zirkuituan bertan eta beste ekoizpen-lerroetan erabiltzeko paper-zapi bustien euskarri den IV. makina berrian, zuntzen bi berreskuratzaile, iragazki lodigarri bat, flotazio-zelula bat eta harea-iragazki bat ezarrita.

– Zirkuitu itxi independenteak papera egiteko hiru makinetako huts-ponpetako eraztun likidoe-tako urentzat.

– SIMEONI iragazki autogarbitzailea, 2K 2.000 W-ekoa eta Trenner motakoa, urak berreskuratu eta paper-makinen ore-lerroetako fintzeetako estropadolareetan berrerabili ahal izateko.

– 3. makinaren barne-zirkuituan dunbal lodigarria, hondakinen hobiko zuntzak berreskuratuko dituen kolektorera isurtzea ekiditeko.

– Kolektorera isuri aurretik 3 makinetako ur iragazietatik datozen zuntzak berreskuratuko dituen flotazio-zelula bat, berriz zatien zirkuitura itzultzeko.

– Arazketa ziklonikoko instalazioak I., II. eta III. makinetan, zuntzen errefusa gutxitzeko prozesuan.

– VOITH disko-iragazkiak instalatzea I. makinan eta III. makinan, zuntzak berreskuratuzeko eta urak klarifikatzeko.

– Produktu kimikoak prestatzeko eta dosifikatzeko ekipoak, zuntzak, karga mineralak eta produktu lagungarriak paperean atxikitzen laguntzeko orria egiteko prozesuan fabrikazio-mahaian; horrela, solido-kontzentrazio txikiagoa duen ur xukatua lortzen da.

Iztukadura-instalaziotik datozen uren aurretratatamendua:

– Ponpatze-ekipamenduak I. eta III. makinetan eta «sukalde» berrian, jario posibleak eta garbiketako urak biltzeko, eta horiek «sukalde» zaharraren peko tarteko andel batera bidaltzea.

– Gordailu erregulatzailerik batera ponpatzen duen bitarteko andela, eta 24 m³-ko edukierako biltegia duena.

– Lohiak mekanikoki erauzteko gailua duen kono-enbor formako dekantagailua, eta errektiboak gehitzen zaizkien koagulazio- eta malutapen-upelak. Ur klarifikatua gainezkabidetik bidaltzen da industria-ura tratatzeko kanaletara, eta dekantatutako lohiak, aldiz, lohien andelera bidaltzen dira, tratatuak izan daitezten.

Industria-isurien tratamendu orokorra:

– 400 m³-ko edukierako andela eta IV. makinako isurien erregulazioa fabrikaren barneko kanaletara gehitu baino lehen.

– Jario posibleak eta prozesuko soberakinak biltzeko barne-kanalizazioak, ponpatze-putzu batera eramateko.

– Sare autogarbitzaile baten bidez arbastatzea, ponpaketa baino lehen.

– 12 m³-ko edukierako ponpatze-andela, bi ponpa zentrifugo dituena, bakoitza 175 l/s-ko gaitasuneko, frekuentzia-erregulagailuen bidez maila erregulatzen duena. Homogeneizazio-tangara bideratzen dute isurietako ur gordina ponpa hauek.

– 900 m³-ko bolumena du larrialdien homogeneizazio- eta erretentzio-tangak.

– Aire disolbatuzko flotagailu bidezko ur-klarifikagailua, KROFFTA etxeko «Megacell» modeloa: 122 l/s-ko emaria tratatzeko gaitasuna du (130 l/s-ko puntako emariekin); errektibo koagulatzailerik eta malutatzaileen adizioarekin hornituta dago, eta pH-a doitzen du soda kaustikoa automatikoki dosifikatuz.

– Ur klarifikatuaren hauspo-andela eta ponpatze-ekipamenduak, fabrikaren berrerabiltzeko eta soberakina prozesu biologikora bidaltzeko.

– Ohantze mugikorren errektore biologikoa (MBBR), 900 m³-ko bolumena eta banaketa-parrilla murgildudun aireztatze-sistema eta frekuentzia erregulatzailerik duen haizatzailea, oxigeno disolbatuko sentsoredun lakio-kontrol bidez erregulatua.

– Flotazio-zelulan sartu aurreko mailako kutxa desaireztatzailea.

– Akaberako tratamendu fisiko-kimikoa flotazio-zelulan.

Lohien tratamendua:

– Megacell eta Isofloat flotazio-ekipamenduetatik eta iztukadura-uren arazketatik datozen lohien deshidratazioa, FAN SEPARATOR torlojuzko prentsa baten eta FOURNIER markako disko-prentsa birakari baten bidez. Edukiontzietan uzten dira lohi lehorrak, kudeatuak izateko.

Aurreikusitako neurri gehigarriak.

Araztegiaren funtzionamenduaren fidagarritasuna handitzea eta azken isuriari eragin diezaioketen gertakari posibleak ezabatzea, neurri gehigarri hauek ezarriz:

– Larrialdi-tanga bat ezartzea, efluenteen bilketa- eta ponpatze-sisteman gertakariak jazoz gero, isuri gordina gelditu, erregulatu eta dosifikatzeko gaitasuna duena.

– Akaberako azken tratamendu fisiko-kimikoko ekipamendu berria, lehendik dagoenarekin seriean.

Urtebeteko epea ipintzen da neurri hauek ezartzeko.

NO2000259 Komunak-Papergintza-Amezketak.

Tratamendu-sistemak «Salsher Ibérica» etxeko bi gailu ditu, bakoitza 25 eta 20 biztanleri dago-kion ahalmenarekin, hurrenez hurren. Unitate bakoitzean elementu hauek daude:

- Dekantazio/digestioko eremu anaerobikoa.
- Bakterio-ohantzearen iragazkia/deskarga ganbera.
- Bigarren mailako dekantagailua.

Ikusiz gero hartutako neurri zuzentzaileak ez direla nahikoak, Papel Aralar SAK behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan, isuriak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

B.2.5.– Isuria kontrolatu eta husteko elementuak.

Baimendutako isuri bakoitzeko, kontrol-puntu bat izango da, arazketa-instalazioen ostean kokatua, eta Uraren Euskal Agentziak, egoki irizitakoan, hori ikuskatu eta laginak hartu ahal izango ditu. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 252., 333. eta 334. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ahalbidetu egin beharko da, inolako atzerapenik gabe, Administrazioari langileak kontrol-puntu horretara sartzeari, baita jabetza pribatuetatik pasatzea ere, baldin eta pertsonen bizileku ez badira.

Isuriak neurtzeko gailua izango du industria-uren kontrol-puntu horrek, bere ezaugarrien arabera aplikatu beharrekoa, ARM/1312/2009 Aginduaren 7. artikuluan jasotakoaren arabera. Bestalde, aipatutako aginduaren 7. eta 8. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu horren funtzionamenduak.

Huste-sare bat baino ez da egon behar kontrol-puntuaren eta jabari publiko hidraulikoaren zuzeneko isuri-puntuaren artean, efluente araztua inolaz ere aldatu gabe, efluentearen ezaugarri aldaketarik gabe eusteko moduan bi puntuen artean.

Kasu honetan, industria-efluentea kontrolatzeko nahitaezkoa da elementu hauek izatea (NO2000258):

– Emari-neurgailua, pHmetroa, turbidimetroa eta tenperatura-neurgailua, azken hori neurketa-tokiko adierazlearekin eta neurrien biltegi digitalizatuarekin.

– Eguneko lagin konposatuak hartzeko gailu automatikoa.

B.2.6.– Isurien kontrol-kanona.

Uraren Legearen 113. artikulua eta Jabari Publiko Hidraulikoaren araudiaren 291. artikulua eta IV. eranskina aplikatuz, isurien kontrol-kanonaren urteko zenbatekoa izango da baimendutako isuriaren bolumena bider isuri-kontrolaren prezio unitarioa, formula honekin bat etorriz:

$$\begin{aligned} \text{CCV} &= V \times P_u \\ P_u &= P_b \times C_m \\ C_m &= C_2 \times C_3 \times C_4 \end{aligned}$$

Non:
 V = Baimendutako isuriaren bolumena (m^3 urtean)
 P_u = Isuri-kontrolaren prezio unitarioa (euro/m^3).
 P_b = Oinarrizko prezioa m^3 -ko, isuriaren izaeraren arabera.
 C_m = Isuriaren maiorazio- edo minorazio-koefizientea.
 C_2 = Isuriaren ezaugarrien arabeko koefizientea.
 C_3 = Isuriaren kutsaduran-graduaren arabeko koefizientea.
 C_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen arabeko koefizientea.

NO2000258 – Ekoizpen-prozesua edo fabrikaziokoa.

$$V = 1.360.800 \text{ m}^3 \text{ urtean}$$

$$C_2 = 1,09 \text{ – Industrialia, 2. mota.}$$

$$C_3 = 0,50 \text{ – Tratamendu egokiarekin}$$

$$C_4 = 1,00 \text{ – III. kategoriako eremua.}$$

$$C_m = 1,09 \times 0,50 \times 1,00 = 0,545000$$

$$P_b = 0,04207 \text{ euro}/\text{m}^3 \text{ – Hondakin-ura: Industrialia.}$$

22/2013 Legeak ezarritako oinarrizko prezioa (abenduarien 26ko BOE), 2014ko urtarrilaren 1etik indarrean.

$$P_u = 0,04207 \times 0,545000 = 0,022928 \text{ euro}/\text{m}^3.$$

$$\text{Urteko CCV: } 1.360.800 \times 0,022928 = 31.200,42 \text{ euro urtean.}$$

NO2000259 – Instalazioetako komunak eta dutxak

$$V = 213 \text{ m}^3 \text{ urtean}$$

$$C_2 = 1,00 \text{ – Hirikoak, 1.999 biztanle arte -baliokideak.}$$

$$C_3 = 0,50 \text{ – Tratamendu egokiarekin}$$

$$C_4 = 1,00 \text{ – III. kategoriako eremua.}$$

$$C_m = 1,00 \times 0,50 \times 1,00 = 0,500000.$$

$$P_b = 0,01683 \text{ euro}/\text{m}^3 \text{ – Hondakin-ura: Hirikoa edo antzekoa.}$$

22/2013 Legeak ezarritako oinarrizko prezioa (abenduarien 26ko BOE), 2014ko urtarrilaren 1etik indarrean.

$$P_u = 0,01683 \times 0,500000 = 0,008415 \text{ euro}/\text{m}^3.$$

$$\text{Isurien kontrol-kanona, urtekoa: } 1.327 \times 0,008415 = 11,17 \text{ euro urtean.}$$

Urteko CCV-ren zenbatekoa = 31.200,42 + 11,17 = 31.211,59 euro urtean.

Uraren Legearen 113.4 artikulua xedatzen duenez, urte natural bakoitzarekin dator bat Isurketen Kontrolaren Kanonaren zergaldia. Ebazpen honetan ezarritakoa da titularrari likidatzen zaion isurien urteko kontrol-kanonaren zenbatekoa, kalkulu honetako faktoreei eragiten dieten isuria baimentzeko baldintzak aldatzeko ebazpenik ematen ez den artean.

Hori dela eta, urtero bidaliko zaio titularrari aurreko ekitaldiari dagokion tasa, lehenago ezarritako zenbateko eta guzti, baldin eta ez badira kitatutako aldiaren oinarritzko prezio eguneratuak aplikatu behar aurrekoen ordean –BOEn argitaratutakoak–. Tasa horretan adieraziko dira kitatu den kanonaren zenbatekoa, epea, lekua eta ordaintzeko modua.

Nolanahi ere, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 294.2.a) eta 294.3 artikuluetan aurreikusitako kasuetan, ekitaldiko egun-kopuru osoa kontuan hartuta, baimena indarrean dagoen egun-kopuruarekiko proportzionalki kalkulatu da urtealdiari dagokion isurien kontrol-kanonaren likidazioa.

Isurien kontrol-kanonak ez du zerikusirik izango autonomia-erkidegoek edo udal-korporazioek saneamendu- eta arazketa-lanak finantzatzeko ezar ditzaketan kanon edo tasekin (Uren Legearen 113.7 artikulua).

B.3.– Instalazioan ekoiztutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira instalazioetan sortutako hondakin guztiak, eta, kasuan kasu, karakterizatu egin beharko dira beren izaera eta helbururik egokiena zehazteko.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, horretarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezingo dira deuseztatu: ezinezkoa izatea horiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik. Beti egiaztatu beharko da hori horrela dela. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko da balorizatzeke beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, lehentasunez instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baldin eta aurreikusten bada zabortege baimenduan ezabatzea dela hondakinen akaberako helmuga, orduan hondakin horiek ezaugarrituko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak, Hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraikiz, eta Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ebazpen honetan jasotakoa, orientagarria da soilik, kontuan hartuta jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Hargatik eragotzi gabe abendua-

ren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan (4.d apartatua) xedatutakoa, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, kasu honetan soilik eskatu beharko da baimena egokitzea, baldin eta aurretik ezarri diren biltegiratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu beharra badakar sortutako hondakinen kantitatea handitzeak.

Hondakinak biltegiratzeko eremuak edo eremuek lurzoru estankoa izango dute. Baladin eta, goera fisiko likidoan edo oretsuan edo oso bustita egoteagatik, hondakinok isuriak edo lixibatuak sor baditzakete, bada, orduan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak izan beharko dira, gerta daitezkeen jarioak kanpora irten ez daitezzen. Hautsezko hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak lehen aldiz atera aurretik, justifikatu beharko da behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion sortutako hondakinak, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arrisku-ezaugarriei dagokienez, betiere zerrenda honetan ezarritako irizpideekin bat etorritz: Europako Hondakin Zerrenda, 2014ko abenduaren 18ko Batzordearen Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatzen baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta 1357/2014/EB Erregelamendua, Batzordearena, 2014ko abenduaren 18koa, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (zuzentarau hori hondakinei buruzkoa da, eta zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira baimen honetan jasota eta izapidetzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Baldin eta hondakinak desagertu, galdu edo eskapatuko balira, berehala jakinaraziko zaie gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzari eta Amezketako Udalari.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren Lurraldearen Barruko Hondakinen Lekualdaketa arautzeko 180/2015 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batetik lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 25.2 artikuluari jarraikiz.

Nahitaez aurretik jakinarazi behar den kasuetan, uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 25. artikuluan aurreikusitako eta matxoaren 13ko 180/2015 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kausetako bat gertatzen denean, hala organo honek nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakinazpena aurkeztu eta gehienez ere hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Baldin eta hondakinak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarria bete beharko da, hondakinen lekualdaketei buruzkoa.

B.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Hauek dira sustatzaileak aitortutako hondakin arriskutsuak:

2018ko urriaren 23a, asteartea

HEZ	Hondakinaren deskripzioa	Ezaugarriak Arriskugarritas una	Kudeatze ko bidea	Biltegitratze-mota	Sortze-prozesua	Zenbatetsitak o urteko ekoizpena
130208	Erabilitako olioak	H5/6	R13	Aldi baterakoa, kanpoaldean eta estalki pean, kubetaren gaineko andel hermetikoan	Mantentze-lanak	7.000 kg
150110	Erabilitako ontzi hutsak (substantzia arriskutsuekin kutsatuak)	H5	R4	Aldi baterakoa, kanpoaldean eta estalki pean, kubetaren gaineko andel hermetikoan	Ontzi erabiliak biltzea	600 kg
150202	Hidrokarburoz bustitako zapi eta xurgatzaileak	H5	D13	Aldi baterakoa, kanpoaldean eta estalki pean, andel hermetikoan	Mantentze-lanak	1.000 kg
200121	Lanpara fluoreszenteak	H15	R13	Aldi baterakoa, barnealdean eta estalki pean, andel hermetikoan	Mantentze-lanak	70 kg
140603	Disolbatzaile organiko ez-halogenatua	H3b/5	R13	Aldi baterakoa, barnealdean eta estalki pean, andel hermetikoan	Instalazioen garbiketa	Ekoizpen puntuala

a) Hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta ezartzen da hondakin arrisku-tsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa, eta baimena izapidetzean jasotzen da horiei buruzko informazioa. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrikoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Hondakina zer motatakoa den eta zer osagai arriskutsu dituen definitzen dute kodeok. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatzeko, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskal Autonomia Erkidegoko 2015-2020 Ingurumeneko IV. Esparru Programan ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren onarpen-agirietan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, lagatze- edo ezabatze-kodeak baliozkotzeko eskatzen bada berreskurapena edo balioztapena kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen onarpen-agirietan.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, hondakin horien jarioen bat gertatuz gero, eta duten tipologia tarteko, nahasten badira arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen hondakinen kasuetan.

c) Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta ontzikiak etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak isurita edo lurrunduta gal ez daitezela.

d) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabete baino gehiagoz biltegitratu. Salbuespenetan, ingurumen-organoak aldatu ahalko du epe hori, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta bermatzen bada gizakion osasuna eta ingurumena babesteko dela.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko eskakizuna izango da dokumentu baten bidez egiaztatzea hondakinak onartu dituela kudeatzaile baimendu horrek. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatuko da administrazio-baimenarekin bat datozela tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Behar bada, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, justifikatu beharko da ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela proposatutako kudeaketa-modua.

f) Hondakin arriskutsuak lekualdatu aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena aurretiaz arauz zehaztutako moduan eginda, identifikaziorako agiria bete beharko

da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Papel Aralar SAk onarpen-agiriak eta kontrol- eta jarraipen-agiriak edo haien baliokide diren agiri ofizialak erregistratu eta artxiboan gorde behar ditu, hiru urtez, gutxienez.

g) Egiaztatu beharko da baimendutako kudeatzailearen instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraioak betetzen dituela halako gaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutako betebeharrak.

h) Industrian Erabilitako Olioaren Kudeaketa arautzeko ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du Papel Aralar SAk bere enpresan erabilitako olioak.

i) Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak–. Halaber, Pilei eta Metagailuei eta Haien Hondakinen Ingurumen Kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute pilen eta metagailuen hondakinek. Kudeatzaile baimenduaren tratamendu-kontratua izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-agiria betetzeko betebeharretik salbuetsita egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegiturretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu, betiere. Toki-erakundeei egindako entregak justifikatzeko agiriak hiru urtez gorde behar dira gutxienez.

j) Poliklorobifeniloa duten edo eduki dezaketen gailuak dituen heinean Papel Aralar SAk, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu Poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatzeke eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan zehaztutako baldintzak, eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretuan xedatzen direnak.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009/EE Erregelamendua ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoa da. Bada, xedapen horretan adierazitako substantziak erabiltzen baditu Papel Aralar SAk, berreskuratu egingo ditu, aldeek onetsitako bitarteko tekniko bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko ditu aparatuek berrikusteko edo mantentzeko eragiketetan, edo desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

l) Papel Aralar SAk urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen zerrenda. Datu horiekin batera, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programa ere bidaliko du.

m) Erregistro bat izango da, eta han adieraziko dira kantitatea, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak, hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak.

n) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarritzko printzipioetako bat da mota horretako hondakin ahalik eta gutxien ekoiztea. Bada, hori betetzeko, hondakin arriskutsu gutxiago sortzeko plan bat egin eta aurkeztu beharko dio Papel Aralar SAk Ingurumen Sailburuordetzari, lau urtetik behin gutxienez, Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 17.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere aipatutako legea garatzen duen araudiak ez badu Papel Aralar SA hondakin arriskutsuen ekoizle txiki gisa katalogatzen.

o) Baldin eta Ontzietan eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehenengo xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritza- edo

industria-ontzi baten azken jabea bada Papel Aralar SA, bera izango da ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

p) Irailaren 25eko 183/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira e) eta f) apartatuetan aipatutako dokumentuak –kudeatzaileak EAEkoak direnean– eta l) eta m) apartatuetan aipatutakoak, transakzio elektronikoko IKS-eeM sistemako erakundeentzako bertsioa erabiliz; dekretu horren bidez ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautu zen, eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortu eta arautu.

Amiantoa duten hondakinak antzemanaz gero, Amiantoak Ingurumenean Sortzen duen Kutsadura Saihestu eta Gutxitzeko 108/1991 Errege Dekretuan (3. art.) xedatutako eskakizunak bete beharko ditu Papel Aralar SAk. Horrez gain, 396/2006 Errege Dekretuan xedatutako eskakizunen arabera egingo dira amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Hauek dira sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak:

Hondakinaren izena	HEZ kodea	Dagokion prozesua	Kalkulatutako ekoizpena (t/urte)
Arazketa-lohiak	030311	Papera fabrikatzea	6.000
Papera	030308	Papera fabrikatzea	370
Egurra	030105	Papera fabrikatzea	30
Erabilitako edukiontzia	150105	Papera fabrikatzea	33
Burdin-txatarra	170405	Instalazioan sortutako hondakinak	190
Kobrea	170401	Instalazioan sortutako hondakinak	0.5
Aluminioa	170402	Instalazioan sortutako hondakinak	0.5
Altzairu herdoilgaitza	170405	Instalazioan sortutako hondakinak	5
Hondakin plastikoak	200139	Instalazioan sortutako hondakinak	31
Zuntz inpregnatuak	030310	Instalazioan sortutako hondakinak	200
Instalazioaren garbiketako hondakinak	200301	Zerbitzu orokorrak	100

a) Hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei buruz bigarren apartatuko C.3 azpi-partatuan xedatutakoaren arabera, hondakinak balorizatu egin beharko dira, eta balorizatzaile baimendun bati eraman beharko zaizkio horretarako. Hondakinak ezabatu edo deuseztatze aukera bakarra izango da teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik ezinezkoa izatea haiek balorizatzea. Justifikazio tekniko hori baliagarria izan dadin, frogatu beharko da balorizatzeari uko egiten diotela delako hondakina hartzeko baimena duten hiru kudeatzailek.

b) Erabilitako ontziak eta ontzien hondakinak materialen arabera egoki bereizita entregatu beharko zaizkio agente ekonomiko (hornitzaile) bati, berrerabiliak izan daitezen, ontzi erabilien kasuan; edota berreskuratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu bati, ontzien hondakinen kasuan.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezingo dira urtebete baino gehiagoz biltegitratuta eduki; hondakinen azken helburua balorizatzea denean, berriz, 2 urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, ebakatu aurretik hondakin guztiek izan beharko dute kudeatzaile baimendu batek emandako tratamendu-kontratua, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela proposatutako kudeaketa-modua. Papel Aralar SAK onarpen-agiriak edo agiri ofizial baliokideak erregistratu eta artxibategian gorde beharko ditu, nahitaezkoak badira, hiru urtez gutxienez.

e) Hondakina hondakindegian biltegitratuz gero, jarraipen- eta kontrol-dokumentua bete beharko da hondakin ez-arriskutsua eraman aurretik, Hondakinak hondakindegian biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa.

f) Balorizatzeko edo ezabatzeko helburuarekin, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 25.2 artikulua araber.

g) Papel Aralar SA baldin bada Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritza- edo industriarako ontzi baten azken jabea, Papel Aralar SA izango da ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna, eta, beraz, berau kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

h) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek jasoko dituen: kantitatea, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodoak eta tokiak, hondakinen sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtean behin, kontrol-erregistro horren kopia bat eta dagokion ingurumena zaintzeko programa –dagokion urtekoa– bidali beharko dira Ingurumen Sailburuordetzara.

i) Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko irailaren 25eko 183/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira atal honetako d), e) apartatuetan aipatutako dokumentuak –kudeatzaileak EAEkoak direnean– eta f) apartatuan aipatutakoak, transakzio elektronikoko IKS-eeM sistemako erakundeak bertsioa erabiliz.

B.4.– Ontziak merkaturatzea.

Papel Aralar SAK, bere produktuak merkaturatzeko ontziak eta bilgarriak erabiltzen dituen, ontzi horien gaineko informazioa eman beharko du urtero, martxoaren 31 baino lehen; horretarako, Ontzien Gaineko Urteko Adierazpena egin beharko du. Datu horiekin batera, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programa ere bidaliko du.

Era berean, Papel Aralar SAK ontzi erabiliak eta ontzi-hondakinak kudeatzeko, biltegitratzeko eta itzultzeko sistema bat ezarri beharko du (zuzenean edo kudeaketa-sistema integratu bati atxikita). Papel Aralar SAK, bere produktuak merkaturatzeko industria- edo merkataritza-ontziak erabiltzen baditu, aipatu betebeharrak horretatik salbuesteko eskatu ahalko du, Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian araututakoari atxikiz; atxikimendu horren bidez, produktuaren kontsumitzaileari transferitzen zaio ontzi horiek kudeatzeko eta ingurumen-organoari informazioa pasatzeko betebeharra.

Baldin eta Papel Aralar SAK, urte natural batean zehar, ontziratutako produktuak merkaturatzen baditu edo, kasua bada, hondakinak sor ditzaketen industria- edo merkataritza-ontziak merkaturatzen baditu kantitate hauetan baino handiagoetan:

- 250 tona, beira bakarrik bada.
- 50 tona, altzairua bakarrik bada.
- 30 tona, aluminioa bakarrik bada.
- 21 tona, plastikoa bakarrik bada.
- 16 tona, egurra bakarrik bada.
- 14 tona, kartoia edo material konposatuak bakarrik badira.
- 350 tona, hainbat material badira, eta bakoitzak, bera bakarrik hartuta, ez baditu gainditzen lehen aipatutako kantitateak.

Prebentziozko enpresa-plan bat egin beharko du. Plan horrek hiru urteko indarraldia izango du, eta prebentziorako enpresa-planaren kontrol- eta jarraipen-txostena egin beharko da urtero, dagoen urteko martxoaren 31 baino lehen. Ingurumena zaintzeko dagokion urteko programarekin batera bidaliko dira bi agiriok.

B.5.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta Lurzoruaren kutsadura prebenitu eta hari aurre hartzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako betebeharrak betez, lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten atariko txostenaren arabera, eta txisten horretan jasotako gomendioen arabera, hauek egin beharko ditu Papel Aralar SAK: jario posibleak geldiarazteko neurriak ezarri; gasolioaren horniketarako eremuan bilketa-erretilua ezarri orga jasotzaileei, eta gasolioaren andelean estankotasun-probak egin.

Halaber, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatuta dauden eta lurzoruaren babesarekin lotura duten betebeharrak egikaritzeko, ingurumen-organoak 2016ko azaroaren 17an bidalitako «Lurzoru kutsatuen eta lurpeko uren gaineko arauzko eskakizunak aplikatzea ingurumen-baimen integratua behar duten instalazioetan» zirkularrean aipatzen diren instalazioei eskatzen zaien dokumentazioa entregatu beharko du sustatzaileak. Zirkular horretan, honako hau jasotzen da: lurzoruaren egoeraren aldizkako txostenaren edukia eta emateko baldintzak, lurpeko uren eta lurzoruen txostena, kontrol-agiria eta jarraipen-agiria, esteka honetan eskura daitekeena:

<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-pcc/eu/>

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzoruen dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzoruaren kalitatea leheneratzen ibiltzen den erakunde akreditatu batek egina. Dokumentu horretan hauek jasoko dira: lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarritzko txostena, eta kontroleko eta lurzoruen eta lurrazpiko uren jarraipeneko dokumentuak. Aurrerantzean ere, emandako agiriak aldatu edo agiri berriak eman behar badira, lurzoruen agiri bakar berri bat bidaliko da.

Instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez baldintza hauek bete beharko ditu, sustatzaileak:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurrak mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluko 1.c) apartatuan ebazten denarekin bat etorritik, hondeatu beharreko materialak (lurra, obra-hondakinak, eta abar) karakterizatu beharko ditu jardueraren sustatzaileak, jardun kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa-modu egokiena zehaztearren.

b) 500 m³ material-kantitate baino gehiago hondeatzen bada hondeaketa horretan, gaikako hondeaketa-plan bat aurkeztu beharko du sustatzaileak; 13. artikuluan adierazitako edukia jaso beharko da plan horretan, eta, betetzen hasi aurretik, ingurumen-organoak onartu egin beharko du plan hori.

c) 500 m³ baino bolumen txikiagoa hondeatzen bada, informazio hau eman beharko da aldatetaren jakinarazpenean: non dagoen kokatuta, zenbat hondeatu behar den, aurreikusitako hasiera-eguna, kontratista, jarraipena egin eta kudeatzeaz arduratuko den erakunde akreditatua.

d) Aurreko kasu horietan guztietan, hondeatzen amaitutakoan, hondeatutako materialak zuzen berrerabili edo kudeatu direla ziurtatzen duen txosten bat aurkeztu beharko da ingurumen-organoan, behar bezala karakterizatu aurretik.

e) Oro har, irizpide hauek beteko dira:

– Soberakinak hondakindegian biltegituz hustu nahi izanez gero, Hondakinak hondakindegietan biltegitututa eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, lagin baten azterketa egin beharko da. Laginak hondakindegian kudeatu beharreko soberakinen 500 m³ bakoitzeko 10 azpilagin izango ditu gutxienez, baina hori aldatu ahal izango da espero daitekeen kutsaduraren heterogeneotasunaren eta homogeneotasunaren arabera. Afekzioa homogeneoa izango dela aurreikusten den kasuetan, 500 m³-ko bolumena baino bolumen handiagoa duten unitateez osatutako lagin konposatua hartu ahal izango da, eta, aldiz, 500 m³ baino txikiagoa, afekzio heterogeneoaren kasuan.

– Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako VIE-B (industria-erabilera) balioaren azpitikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde akreditatu batek egin beharko ditu laginketa eta azterketa, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez ezarritzen baita lurzorua kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema, eta erakunde horiek lurzorua kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten.

– Lur garbitzat hartuko dira ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako VIE-A ebaluazioko balio adierazleak eta TPH-etarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurak, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelanerako.

– Murrizketarik gabe kudeatu ahalko da substratu harritsu osasuntsua. Lurzoru naturalaren pareko den harrizko substratu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Baldin eta aurreikusten bada lur-mugimendua dakarren aldatetaren bat egingo dela instalazioa baimenduta dagoen lurzatitik kanpo (lurzoru berria okupatuz), eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 1. eranskinean aipatzen den jar-

dueraren bat, lurzoru-gaiei buruzko adierazpen bat lortu beharko du sustatzaileak, egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Era berean, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluko 2. apartatuaren arabera, lurraren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingu-rumen Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek ezar ditzan hartu beharreko neurriak, aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1.e apartatuari jarraikiz betiere.

B.6.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Beharrezko neurri guztiak ezarriko dira honako indize akustiko hauek gaindi ez daitezen:

a.1.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitar-tean, leiho eta atek itxita, ezta LMax indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitar-tean, leiho eta atek itxita, ezta LMax indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4m-ko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik, horietan apantailamenduak saihesteko beharrezko garaiera hartuko baita), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
Ld	75
Le	75
Ln	65

1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren eskatutako zarata-mailak.

Funtzionamenduan den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du egu-neko inolako baliotan (LAeq,d, LAeq,e eta LAeq,n) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gaindituko.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jar-dun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (LAeq,Ti), non Ti baita jardun-modu horren iraupen-denbora. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-tan gaindituko.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen han-dituko sentsibilitate akustiko handiagoko guneeetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferako isurketak kontrolatzea.

C.1.1.– Kanpoko kontrolak.

a) Papel Aralar SAK isurketen kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

2018ko urriaren 23a, asteartea

Fokua	Erregistro-liburuko izena	Fokuaren izena	Neurketa-parametroak	Neurketa-metodoa	Kontrolen maiztasuna
2	20-25583-02	Umisa galdara	Nitrogeno oxidoak (NO _x) Karbono monoxidoa (CO)	IT-02 Argibide teknikoaren arabera: Isurketen kontrola ⁽¹⁾	HIRURTEKOA
15	20-25583-15	Aitesa galdara			
16	20-25583-16	IV. makinaren galdara			
4	20-25583-04	Paper-makinaren olio-galdara termikoa I	Nitrogeno oxidoak (NO _x) Karbono monoxidoa (CO)	IT-02 argibide teknikoaren arabera: Isurketen kontrola ⁽¹⁾	BOST URTEKOA
5	20-25583-05	Paper-makinaren olio-galdara termikoa III			
6	20-25583-06	Paper-makinaren infragorriak I (I)			
7	20-25583-07	Paper-makinaren infragorriak I (II)			
8	20-25583-08	Paper-makinaren infragorriak I (III)			
10	20-25583-10	Paper-makinaren infragorriak III (II)			
11	20-25583-11	Paper-makinaren infragorriak III (III)			

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduaren bidez zehaztu ziren jarraibide teknikoak Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak garatzen dituzten instalazioak arautzeko abenduaren 27ko 278/2011 Dekretua garatzeko.

b) Puntu honetako a) apartatuan aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako Administrazioari Lankidetzaren Erakunde (ALE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren eskakizun guztiak bete beharko dituzte, bereziki honako gai hauei dagokienez: helburua eta neurketa-plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa-kopurua eta banakako neurketa bakoitzaren iraupena, eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

c) Halaber, a) apartatuan azaldutako isurketa-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagokotan funtzionatzen badu batez beste, bakoitzak ordu-bete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozelako maiztasunarekin, emisioaren iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, betiere kontrolatik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori ingurumena zaintzeko programan, dagokion urtekoan, justifikatu beharko da.

C.1.2.– Erdietsitako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako xedapen hauetan ezarritakoari jarraikiz, betiere: Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua, eta Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren III. eranskina.

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu duen dokumentazioaren arabera, honako analisi hauek egingo dira:

Isuria	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
NO2000258 Prozesua- Papergintza- Amezketak	Industria-erabilerako urak	pH-a, emaria, uhertasuna eta temperatura	Jarraitua	Barrukoa
		SE, OEK	Egunero	Barrukoa
		OEB ₅	Astero	Barrukoa
		pH-a, eroankortasuna, OEK, OEB ₅ , solido esekiak, Al _{total} , AOX, guztizko Nitrogenoa, guztizko Fosforoa, emaria eta isuritako kargak	Hilero	Kanpokoak
		Metal azpimarragarriak	Urtero	Kanpokoak
NO2000259 Komunak- Papergintza- Amezketak	Erabilera higienikoko urak	pH-a, OEK, OEB ₅ , solido esekiak, olioak eta koipeak	Urtero	Kanpokoak

Gainera, analitika hauek egin beharko ditu Europako Batzordearen 2014ko irailaren 26ko Betearazpen Erabakia betez, zeinaren bidez ezartzen baitira oreka, papera eta kartoia ekoizteko teknologia erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak:

Isuria	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
NO2000258 Papergintza industrial Amezketak	Industria-erabilerako urak	Guztizko nitrogenoa, guztizko fosforoa (1)	Astero	Barrukoa

– Metodo analitiko lasterrak ere erabil daitezke. Erregularri egiaztatu behar dira proba lasterren emaitzak (adibidez, hilean behin) EN araukiko, edo, ez bada EN araurik, Espainiako edo nazioarteko ISO araukiko, zeinek kalitate zientifiko baliokidea erdiestea bermatzen baitute.

b) Kanpo-kontrol bakoitza, dela laginak hartzea, dela ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publiko Hidraulikoaren 255. artikulua) eta aurreko puntuetan aipatutako parametroen gainean egingo da. Isuri-puntu bakoitzeko, gutxienez lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du sustatzaileak; 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da lagin hori, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Hauei bidaliko zaizkie isurien kontrolen emaitzak:

– Uraren Euskal Agentziari, laginak hartzen direnetik hilabeteko (1) epean.

– Ingurumen Sailburuordetzari, ebazpen honetako bigarren apartatuko C.6 azpiapartatuan ezarritako epeak eta baldintzak betez.

Gainera, sustatzaileak parametro orokorren eguneroko autokontrol-orriak bidaliko ditu hilero, kalkulu-orriaren formatuan.

Posta elektronikoz bidaliko da informazio analitiko oro, helbide honetara: dk-gipuzkoa@urag-zentzia.eus

c) Parametroen analisisa egiteko, «Standard Methods For the Examination of Water and Wastewater» txostenean (APHA, AWWA, WPCF, azken argitalpena) edo «ASTM Water and Environmental Technology» txostenaren azken argitalpeneko 11. sekzioan jasotako metodo normalizatuak erabiliko da. Parametroaren ohiko kontzentrazioaren arabera egokiena dena hautatuko da. Gaur egun erabiltzen diren metodoak ez bezalako analisi-metodoak ezarri ahal izango dira, kutsatzaileen kontzentrazioa hobeto zehazteko. Eskatutako analisisien parametro bakoitzean erabilitako analisi-metodoa adierazi beharko da.

d) Titularrak urtero aurkeztu beharko du lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak barne hartutako substantzia arriskutsuak dituzten isuriak daudela aitortzen duen agiria. Agiri horretan ekoizte-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurietan ez detektatu.

e) Gutxienez urtebeteri dagozkien kontrolen emaitzen eta Administrazioak egin ditzakeen arabera, horien maiztasuna berrikusi ahal izango da, isuria egin duen entitate titularrak berariaz eta arrazoituta hala eskatuz gero.

f) Uraren Euskal Agentziak, egoki deritzonean, arazketa-instalazioak ikuskatu eta efluentearen emariak eta analisiak aztertuko ditu, egiaztatzeko isuriaren emariak eta parametroak ez dituztela gainditzen muga baimenduak. Era berean, arazketa-instalazioak ustiatzeko titulazio egokia duen arduradun bat izendatzeko eskatu ahal izango dio titularrari.

g) Kutsatzaile gehien ekoizten den aldietan egingo dira laginketak beti.

h) Biomasaren P eta N edukien, lohi-bolumenaren indizearen eta efluenteko amoniako- eta ortofosfato-soberakinaren urteko analitika bat egingo da, eta lohi biologikoaren azterketa mikroskopiko bat. Ingurumena Zaintzeko Programa ematean erantsiko da informazioa.

i) Isuriak baimenaren eskakizun guztiak betetzen dituela ulertuko da, baldin eta puntu honetako a) apartatuan ezarritako kontrol-parametro guztiak betetzen badituzte ebazpen honen bigarren apartatuko B.2.3 azpiapartatuan ezarritako mugak.

Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

C.3.– Instalazioaren inguruneak ingurune urtarrean duen eraginaren kontrola

Urtean behin neurtuko da adierazle biologiko hori. Horrenbestez, agorraldia iristean, komunitate bentonikoen osaera, ugaritasuna eta dibertsitatea zehaztuko dira, IBMWP eta IASPT adierazle biotikoen bitartez.

Isuriak ingurune hartzailean izan duen eraginaren inguruko ondorioen txostena egingo da, isuriaren uretan gora eta uretan behera, aipatu adierazleen datu konparatiboetan oinarrituta.

C.4.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Jardueraren gaineko ondorengo parametro-adierazleen segimendua egingo du urtero sus-tatzaileak, ingurumenean duten eragina aztertzeko, eta urtean urteko ingurumen-zaintzako programarekin batera aurkeztuko du.

Adierazlea	Unitatea
Ekoizitako papera	t
Ore-kontsumoa / Ekoizitako paper t	t
Guztizko energia-kontsumoa	Kwh
Energia-kontsumoa (KWh/ekoizpena)	kWh/t paper
Gas naturala (adierazi BBA edo GBA den) / Guztizko energia-kontsumoa	kWh/kWh (%)
Bestelako erregai fosilak / Guztizko energia-kontsumoa	kWh/kWh (%)
Elektrizitate-kontsumoa / Guztizko energia-kontsumoa	kWh/kWh (%)
Energia kogeneratua / Ekoizitako papera	kWh/t paper
Ur-kontsumoa	m ³
Ur-kontsumoa / Ekoizitako paper t	m ³ /t paper
Sareko ur-kontsumoa/guztizko ur-kontsumoa	m ³ /m ³ (%)
Industria-isuriak / Helmuga	m ³
Industria-isuriak / Ekoizitako papera	m ³ /t
OEK / Ekoizitako papera	Kg/t
OEB ₅ / Ekoizitako papera	Kg/t
CO2 isurketen guztizkoak	t
CO2 isurketak / Ekoizitako papera	t/t paper
Sortutako hondakin ez-arriskutsuak / Fabrikatutako paper t	t/t
Hondakin ez-arriskutsu balorizatuak / Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	t/t (%)
Araztegiko lohiak (adierazi hezetasun-ehunekoa) / Ekoizitako papera	t/t
Balorizatutako araztegi-lohia / Sortutako araztegi-lohia	t/t (%)
Ustekabeko isuriekin lotutako gertakari-kopurua	Kop./urte
Ekoscan / ISO14001 / EMAS	BAI/EZ Zein/urte

C.5.– Zarataren kontrola.

a) Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira bost urterik behin: Ld, Le, Ln, LAeq,Ti eta LAeq,60 segundu. Erdietsitako emaitzen arabera, neurketak egiteko beste maiztasun bat erabaki ahal izango da.

b) Aurreko atalean adierazitako ebaluazio guztiak ENAC erakundeak espazio- eta denbora-laginketarako egiaztatutako akustikaren esparruko entsegu-laboretegiek egin beharko dituzte. Nolanahi ere, ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du ingurumen-organoak.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

C.6.– Emaizak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta analisisien emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, Ingurumen, Lurralde Plan-gintza eta Etxebizitza Sailaren webguneko bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz:

https://www.euskadi.eus/y22-izapide/es/contenidos/serv_proc_comunicacion/p_comu_201732123333101/procedures/proc_201732144928210/es_def/electronic_partial.shtml

Era horretan, aipatutako programak zehaztutako aldiaren egiten diren kontrol guztiak, ibilgura edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren. Ezarritako baldintzak betetzen ez direnean bakarrik egin beharko da hari dagokion jakinarazpena, eta ingurumen-baimen integritatearen ezarritakoaren arabera egin ere. Era berean, kontrolak urtean behin baino gehiagotan egiten badira, kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Emaizak horiek urtero bidaliko dira, martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen analisia, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien kausa eta konponbide posibleak azalduz; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aurrez aldetik hala egin ez bada.

C.7.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina.

Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina prestatu beharko du sustatzaileak, eta bertan bildu beharko ditu aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak. Honako hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika, adierazle horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzea ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoerarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurketen eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du sustatzaileak, eta, hala dagokionean, haiek kudeatu eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa gelditzean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatzeko, bigarren apartatuko C.2.3 azpiapartatuan («Instalazioan ekointzitateko hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko baldintzak») ezarritakoari lotu beharko zaio, baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota egotea.

D.2.– Jarduera etetea.

Jarduerari xedapen hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa (21.1 Paper-orea, papera eta kartoia fabrikatzea), eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzekoa. Horrenbestez, Papel Aralar SAK jarduera-etete horren berri eman beharko dio ingurumen-organoari, bi hilabeteko epea agortu baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduera-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, erakunde horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea noiz hasiko den beranduenez, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31.3 artikuluan xedatzen duenari jarraikiz.

Jarduera eten baino lehen, Papel Aralar SAK instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, ebazpen honen bigarren apartatuko C.2.3 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorriz.

D.3.– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako etetea eskatuz gero, Industriako Isurpenen Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan arautu bezala, Papel Aralar SAK, aldi baterako etetearen eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko du lantegia jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen integratuan ezarritako kontrolak eta eskakizunak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, jarduera berriz hasi baino lehen, instalazioen funtzionamendu ona ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina izan dezakeen edozein isuri edo isurketa saihesteko.

D.4.– Ohiz kanpoko funtzionamenduko prebentzio-neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako dokumentazioan proposatutako ohiko egoerez bestekoetan aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eta funtzionamendu-baldintzez gain, atal hauetan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo isuriak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean, lurzoria babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: erai-kuntzako materialak (iragazgaitasuna), biltzeiratzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), ihes posibleak antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, fabrikako kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa-mota) eta lurzoru gaineko jarioak biltzeko sistemak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen- eta kontrol-programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, tangen barnealdearen ikuskapen bisualak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzoria kutsa dezakeen edozein egoera prebenitzeko.

Era berean, atmosfera eta ingurune urtarra kutsatzea prebenitzeko eta kutsatutakoa zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipamenduen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Urak arazteko prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak beharrezko maiztasunez aterako dira, instalazioak behar bezala funtziona dezan. Hondakin horiek ez dira ibai-ibilgura hustuko aldizkako garbiketa egiten denean; bildu egin beharko dira, kudeatzeko edo hondakindegia baimendu batera eramateko. Hala dagokionean, hondoan hustubiderik ez duten andel iragazgaitzetan biltegitratuko dira. Ez dira inoiz pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneeetan.

Baldin eta instalazioetan lohien tratamendua badago, horietatik jaregindako ura berriro bideratuko da arazte-instalazioko sarrerara, tratamendua jaso dezan.

Hobi septikoaren sistemak eta iragazki biologikoak garbitze- eta mantentze-lan egokia izango dute errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako solidoak eta lohiak, iragazki biologikoaren ohandza garbituko du, eta garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuko da.

Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Hondakin-ura ezingo da «by-pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan «by-pass» bidez isuriak egin behar badira nahitaez, titularrak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isuriak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz. «By pass» horretatik ustekabeko isuri bat sortuko balitz, segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko luke titularrak, Ingurumen Sailburuordetzara 48 orduko epean bidali behar duen txostenaren bidez (apartatu honetako i letran adierazitakoaren arabera).

b) Halaber, erregistro bat eduki behar da, aldizka egindako mantentze-lanak eta antzemandako gorabeherak jasota uzteko.

c) Behar diren bitartekoak izango ditu eskura titularrak, arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak eraginkor mantentzeko.

d) Erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, besteak beste, eta, oro har, instalazioan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzakete. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur-zatien azalera guztiak iragazgaitzuko dira.

e) Hautsezko produktuak biltegitratzeko, zulo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak izan beharko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegitratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratze-instalazioek eskakain batzuk bete beharko dituzte; zehazki, produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarreko araudian xedatutakoak.

h) Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko, behar diren material guztien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei aurre egiteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontziak, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak, eta babes pertsonalerako ekipo egokiak.

i) Gorabeheraren bat gertatuz gero agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen jazoera edo anomalia baten aurrean, sustatzaileak jazoera edo anomalia horren berri berehala eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, gertatu dena zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren, betiere. Jakinarazpenean, alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera-mota.
- Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).
- Zuzentzeko edo eusteko neurriak, berehala aplikatu direnak.
- Eragindako ondorioak.
- Epe laburrera aurreikusitako jarduketak, halakorik balego.

Jazoera edo anomalia larriren bat edo ustekabeko isurketaren bat jazoz gero, berehala jakinaren gainean jarri behar dira SOS DEIAK eta Amezketako Udala. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuaren ondorioz sortutako egoera zehaztasunez jasotzen duen txosten bat bidali beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera-mota.
- Gorabehera non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Gorabeheraren iraupena.
- Ustekabeko isuria izanez gero, emaria, isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitezkeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisia barne hartuta.
- Mugak gaindituz gero, isurketei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Anomalia berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isuria gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen oreka modu larrian kalteku badezake, titularrak berehala etengo du isuri hori, eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziari eta Babes Zibilean zein ingurumenaren arloan ardurak dituzten erakundeei, baita SOS DEIAK (112) Larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

k) Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, jazoera edo anomalia posiblei aurre egiteko, jardueraren titularrak lehenbailehen jakinarazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari instalazioan aurrez programatuta egingo diren geldialdiak, etengabeko prozesu bati dagozkionak, aurreikusitako prebentziozko mantentze-lanak barne hartuta.

j) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari atxikiko zaio, eta han ezarritako eskakizun guztiguztiak bete beharko dira.

E) Baldin eta hala egitea gomendatzen badute araudi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango

dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizios aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin, martxoaren 31 baino lehen, atmosferara eta uretara egindako isuriei eta sortutako hondakin-mota guztiei buruzko aurreko urteko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Papel Aralar SAK Ingurumen Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretuarekin eta Ingurumena Zaintzeko Programarekin bat etorrituz.

Informazio hori IKS-eeM sistemaren erakunde-bertsioaren bidez emango da (www.eper-euskadi.net webgunean dago eskueran), hau da, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Ingurumen Informazioa Kudeatzeko Sistemaren bidez.

Datu horietako batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta transakzio-basea izango da erregistro hori, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko (E-PRTR-Europa erregistroa).

Ingurumen-adierazpena publikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen aurreikuspenetara doituz, zeinaren bidez arautzen baitira informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentzarauak jasotzen ditu). Horretaz gainera, une oro bermatu beharko da Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzen dela.

G) Instalazioetan aldaketak egin ahal izateko, helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da aldez aurretik:

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/faq/aai/es_faq/adjuntos/cuestionario_modificaciones.doc

eta erakunde honen onespena ere beharko da, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Industriako Isurpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikuluan ezartzen dira aldaketa bat funtsezkotzat jotzeko irizpideak.

Nolanahi ere, aipatutako urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzeko abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorrituz.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c) eta 7.2.c) artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

Baldin eta lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu aldaketak, eta aipatutako lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da aldaketa gauzatu aurretik, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutakoarekin bat etorrituz.»

2018ko urriaren 23a, asteartea

Hirugarrena.– Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 31. artikuluari jarraituz, eta aipatutako arauaren 32. artikuluan xedatutako zigorrek ezartzea ekar dezake.

Laugarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Papel Aralar SAri, Amezketako Udalari, ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta, horrenbestez, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 28a.

Ingurumeneko sailburuordea,
MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR.